



Agindua, 2022ko otsailaren 16koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren 2021., 2022. eta 2023. urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa bigarren aldiz aldatzen duena

2021eko martxoaren 17ko Aginduaren bidez, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (DPE) onartu zen 2021., 2022. eta 2023. urteetarako.

Agindu horren hirugarren ebazpen-zatiak honako hau aurreikusten du: «*Aldian-aldian, plan hori berrikusi ahal izango da, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko titularraren agindu baten bidez. Agindu horren arabera, plan horren aurreikuspenak egokitu ahal izango dira dirulaguntzen deialdia egiteko unean dauden egoera materialetara eta aurrekontuetara, bai eta neurri edo jarduera berriak sartu ere*».

Gaikuntza hori erabiliz, 2021eko ekainaren 30eko Aginduaren bidez, deskribatutako Plan Estrategikoa aldatu zen lehenengoz, hainbat zuzendaritzatik egindako eskaerei erantzuteko eta, beraz, dirulaguntza edo deialdi berriak sartzeko, edo dagoeneko DPEn sartuta dauden fitxen funtsezko parametro batzuk aldatzeko.

Hala ere, Sailaren dirulaguntza-jardueraren xede izan daitezkeen eremu berriak sortu direnez, berriz eguneratu behar da Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

Horregatik, Agindu honen bidez bigarren aldiz aldatuko da Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2021., 2022. eta 2023. urteetarako. Horrela, Plana bat etorriko da Sailak aurreikusten dituen dirulaguntza-deialdiekin.

Plana aldatzean, jarraian aipatzen diren lerroak sortu, aldatu eta ezabatuko dira (programa-zenbakiaren eta tituluaren arabera):

## 1.- DIRULAGUNTZA-LERROEN SORRERA

### 1.1.- Teknologia eta Berrikuntzaren zuzendaritza

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ



5.2.1.10.- Osasunberri dirulaguntza zuzena

1.2.- Eraldaketa Digitalaren eta Ekintzaitzaren Zuzendaritza

5.2.2.3.- Goierri Valley dirulaguntza izenduna

1.3.- Industriaren eta Energia Trantsizioaren Zuzendaritza

5.3.1.13. Laguntzak industriaren sektoreko enpresa txiki eta ertainentzako eta enpresa handientzako

1.4.- Landa Garapeneko Zuzendaritza

5.4.1.15. Landa Garapeneko Tokiko Merkatuak

1.5.- Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza

5.3.3.15.- Pasaiaiko portua berroneratzeko hitzarmena

1.6.- Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza

5.4.3.16.- Arrantza-, merkataritza- eta akuikultura-egiturei laguntzeko programa - Armadoreentzako minimis laguntzak, diru-sarrerak galtzeagatik (COVID-19)

5.4.3.17.- Arrantza-, merkataritza- eta akuikultura-egiturei laguntzeko programa - Jatorrian merkaturatzaile direnentzako minimis laguntzak, diru-sarrerak galtzeagatik (antxo)

5.4.3.18.- Arrantza-egiturak kudeatzeko beken programa

1.7.- Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza

5.5.1.3.- Ekonomia zirkularraren alorreko berrikuntza-proiektuak

5.5.1.4.- Enpresa txiki eta ertainentzako laguntzak

5.5.1.5.- UPV-EHU - Airearen kutsadura

1.8.- Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza

- 5.5.2.18. Asteklima: «Tokiko eremuan jarduerak sustatzea, herritarrak klima-aldaketaren arloan ekintzara mobilizatzeko»
- 5.5.2.19. US2030 Tokiko Berrikuntza Proiektuak
- 5.5.2.20. Hitzarmena Aranzadirekin. GAUTEGIZ ARTEAGAKO PADURAK kontserbatzeko eta lehengoratzeko jarduketak
- 5.5.2.21. Iberdrola. Linea elektrikoak
- 5.5.2.22. Udalak - Jarduketa txikiak Urdaibai Biosfera Erreserban

## 2.- LEHENDIK DAUDEN DIRULAGUNTZA-LERROEN ALDAKETA

### 2.1.- TEKNOLOGIAKO, BERRIKUNTZAKO ETA ERALDAKETA DIGITALEKO SAILBURUORDETZA

#### 2.1.1.- Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza

- 5.2.1.1. HAZITEK, enpresen I+Gri laguntzeko programa
- 5.2.1.2. ELKARTEK, alor estrategikoetan elkarlaneko ikerkuntza babesteko programa
- 5.2.1.3. EMAITEK PLUS, foku anitzeko teknologia-zentroetako eta ikerketa kooperatiboko zentroetako jarduera ez-ekonomikoari laguntzeko programa
- 5.2.1.4. Industria-doktoretzak egiteko eta ikertzaileak sartzeko laguntzen programa - BIKAINTEK
- 5.2.1.5. Azpiegitura zientifiko-teknologikoak eta ekipamendu zientifiko-teknikoa eskuratzeko laguntza-programa - AZPITEK

#### 2.1.2.- Eraldaketa Digitalaren eta Ekintzailtzaren Zuzendaritza

- 5.2.2.2. ELKARGIrentzako dirulaguntza izenduna

### 2.2.- INDUSTRIA SAILBURUORDETZA

#### 2.2.1.- Industriaren eta Energia Trantsizioaren Zuzendaritza

- 5.3.1.1. GAUZATU INDUSTRIA programa
- 5.3.1.2. BIDERATU BERRIA programa
- 5.3.1.3. INDARTU programa

5.3.1.9. EAEko klusterrak dinamizatzen dituzten erakundeei laguntzeko programa

5.3.1.11. Gaitasunak garatzeko eta dibertsifikazio programa. BILAKATU COVID-19 PROGRAMA

5.3.1.12. Finkatzeko programa. BATERATU COVID-19 PROGRAMA

### 2.2.2.- Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza

5.3.2.3.- Alzoko eta Bilboko udalentsako dirulaguntza izenduna

### 2.2.3.- Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza

5.3.3.3. Deustuko Unibertsitateari dirulaguntza. Itsas eta portuetako Enpresen Kudeaketa Masterra

5.3.3.13. Debako itsasadarraren ezkeraldeko dartsena birgaitzeko hitzarmena

5.3.3.14. Eako portuko mendi-hegala egonkortzeko hitzarmena

## 2.3. NEKAZARITZAKO, ARRANTZAKO ETA ELIKAGAI POLITIKAKO SAILBURUORDETZA

### 2.3.1.- Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza

5.4.1.1. Sasoikako langileentzako ostatueterako laguntzak

5.4.1.2. Landa-ingurunearen garapen eta dibertsifikazio ekonomikorako laguntzak, EREIN eremuan

5.4.1.3. Landa-ingurunea sustatzeko eta garatzeko laguntzak, EREIN eremuan

5.4.1.4. Landa- eta itsasertz-ingurunea dinamizatzen duten gizarte-ekitaldiak egiteko laguntzak

5.4.1.5. Itsasertzeko eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntzak

5.4.1.6. Landa-eremuan ekintzailtzarako, enplegua sortzeko eta enpresak sortu eta/edo garatzeko laguntzak, LEADER eremuan

5.4.1.7. Azpiegituretarako, oinarritzko zerbitzuetarako eta herriak berriztatze laguntzak, eta landa-eremuko etxebizitzarako laguntzak, LEADER eremuan

5.4.1.8 Landa-garapenerako elkarreentzako laguntza izendunak

5.4.1.9. Kudeaketa-zentroentzako (RICAV) laguntza izendunak

5.4.1.10. Munduko Nekazaritza Foroarentzako laguntza izenduna

- 5.4.1.11. MENDINET Tokiko Ekintza Taldearentzako laguntza izenduna, parte-hartze bidezko tokiko garapen-estrategien araberrako eragiketak ezartzeko (LEADER)
- 5.4.1.12. MENDINET Tokiko Ekintza Taldearentzako laguntza izenduna
- 5.4.1.13. Nekurrentzako laguntza izenduna

### 2.3.2.- Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza

- 5.4.2.2. Elkarte profesionalak
- 5.4.2.4. Arraza autoktonoen elkarteak
- 5.4.2.5. Oinarrizko ordainketa (NPB LAGUNTZAK)
- 5.4.2.6. Greening (NPB LAGUNTZAK)
- 5.4.2.7. Nekazaritza-jardueran hasten diren nekazari gazteentzako ordainketa osagarria
- 5.4.2.8. Lotutako ordainketa (NPB LAGUNTZAK)
- 5.4.2.9. Nekazaritza-ustiategi txikientzako araubide erraztua
- 5.4.2.10. Laguntza izendunak (Abere, Abelur, Aga, Lorra, Lurgintza, Lursail)
- 5.4.2.12. Laguntza izendunak (Arabako Boilurra – Trufa de Álava, Latxa Esnea, Euskal Esne-Ahutz Elkarte, Euskal Abereak, Euskadiko Ehiza Federakuntza, Euskal Autonomia Erkidegoko Albaitarien Kontseilua, Pentsu Konposatuaren Fabrikatzaileen Elkarte, Gitxegi, Euskadiko Untxizainen Federazioa, Harakai, Ehahe, Elife, Efrife, Elakarfe, Ehate)
- 5.4.2.13. Ekoizpen ekologiko ziurtatutara igarotzeko laguntzak
- 5.4.2.15. Nekazaritza-ustiategietarako laguntzak, animalien ongizateari buruzko Welfair ziurtagiria lortzeko
- 5.4.2.16. Azpisektore produktibo berriei *de minimis* laguntzak

### 2.3.3.- Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza

- 5.4.3.1.- Arrantza-, merkataritza- eta akuikultura-egiturak
- 5.4.3.2.- Itsasoko eta arrantzako ikasketak egiteko beka
- 5.4.3.3.- Arrantza-eremuak garatzea tokiko garapen parte-hartzaileko estrategiak aplikatuz
- 5.4.3.6.- ITSASORATU beken programa
- 5.4.3.7.- Laguntza izendunak. Arrantzale-kofradiak.
- 5.4.3.9.- Laguntza izendunak. Azti fundazioa. Atunontzi izoztaileen sektorearen plan estrategikoa.
- 5.4.3.10.- Laguntza izendunak. Azti fundazioa. Datu-bilketa.
- 5.4.3.11.- Laguntza izendunak. Azti fundazioa. Kirol-arrantzako harrapaketek arrantza-baliabideetan duten inpaktuaren azterketa
- 5.4.3.12.- Laguntza izendunak. BTWC - Atunaren kudeaketa jasangarria sustatzea, jardunbide egokien ezagutza eta lidergoa oinarriztat hartuta.

- 5.4.3.13.- Prestakuntza dualeko beken programa. Itsasoko eta arrantzako irakaskuntzak EAEko zentroetan
- 5.4.3.14.- Laguntza izendunak. AZTI Fundazioaren jarduera ez-ekonomikoen finantzaketa
- 5.4.3.15.- Laguntza izendunak. Preben

#### 2.3.4.- Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza

- 5.4.4.1.- Nekazariak, abeltzainak eta ekoizleen elkarteak kalitate-programetan parte-hartzea sustatzea
- 5.4.4.3- LEHIATU BERRIA (nekazaritza, basogintza, elikagaigintza eta arrantza)
- 5.4.4.5. MAE ardoa - inbertsioa
- 5.4.4.5 BIS.- MAE ardoa - sustapena
- 5.4.4.6.- LEHIATU SUSTAPENA + LEHIATU ARDOA
- 5.4.4.8. BASQUEWINE sustatzea
- 5.4.4.9.- SENDOTU (nekazaritza, basogintza, elikagaigintza, arrantza eta landa-garapena)
- 5.4.4.10.- NEKAFIN
- 5.4.4.22. Nekazaritzako ekoizle elkarteak garatzeko laguntza

#### 2.4.- INGURUMEN JASANGARRITASUNEN SAILBURUORDETTA

##### 2.4.1.- Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza

- 5.5.1.2.- Ekonomia Zirkularraren Estrategia ezartzea

##### 2.4.2.- Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza

- 5.5.2.14. Añanako Gatz Harana Fundazioarekin hitzarmena, Añanako Gatz Haraneko jardueretarako
- 5.5.2.15. Garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten udalentsako dirulaguntzak
- 5.5.2.16. Udalentsako dirulaguntzak: Eskolako Agenda 21 ildoak

### 3.- DIRULAGUNTZA-LERROAK KENTZEA

#### 3.1.- Eraldaketa Digitalaren eta Ekintzailtzaren Zuzendaritza

5.2.2.3. Dirulaguntza izenduna SPORTEK HUBri (7212 programa: Industria Garapena eta Ekintzaileentzako Laguntza)

### 3.2.- Industriaren eta Energia Trantsizioaren Zuzendaritza

5.2.2.10 Laguntza ez-itzulgarria. Lankidetzeta-hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila), ENAGASen, Zierbenako Udalaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen artekoa.

### 3.3.- Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza

5.3.3.1.- Dirulaguntza Euskal Herriko Unibertsitatearentzat, *Revista del transporte marítimo, terrestre y aéreo* aldizkarirako.

### 3.4.- Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza

5.4.3.4.- EAEko arrantza-sektoreko elkarte eta federazio profesional eta enpresarialentzako laguntza-programa (ELKARTEAK)

I. eranskinak sortu diren lerro berrien fitxak jasotzen ditu. II. eranskinak, berriz, lehendik dauden eta aldatu egin diren lerroen fitxak jasotzen ditu.

Horiek horrela, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko martxoaren 17ko Agindua aldatzea, «Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duena 2021., 2022. eta 2023. urteetarako». 2021eko ekainaren 30eko Aginduak ere aldatu zuen Plana, dirulaguntza edo deialdi berriak sartzeko, edo dagoeneko bertan zeuden fitxen funtsezko parametro batzuk aldatzeko.

Bigarrena.- 2021eko martxoaren 17ko Aginduaren Eranskinean sartzea Agindu honen I. eranskinean zerrendatzen diren dirulaguntza berriak.

Hirugarrena.- 2021eko martxoaren 17ko Aginduaren Eranskineko dirulaguntzen fitxak aldatzea, Agindu honen II. eranskinean aurreikusitakoari jarraikiz.

Laugarrena.- 2021eko martxoaren 17ko Aginduaren Eranskinetik kentzea Agindu honen aurrekarietan adierazitako dirulaguntza-lerroak.

Vitoria-Gasteizen.

MARIA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI  
EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMENEN  
SAILBURUA  
(Elektronikoki sinatuta)



I. ERANSKI NA.- Dirulaguntza-lerroen sorrera

5.2.1.10.- Ardatz estrategikoa: Oparotasuna. Enplegua eta suspertze ekonomikoa

Helburu estrategikoa: I +G arloan Europako batez bestekoarekin bateratasuna lortzea
Organoa: Teknologia eta Berrikuntzaren zuzendaritza / Teknologiako, Berrikuntzako Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetza
Programa: 5413 Teknologia
Dirulaguntza-lerroa: Osasunberri proiektua – dirulaguntza zuzena

Helburuak, ekintzak eta adierazleak			
<b>Helburua:</b> osasunaren sektorea indartzea, osasunaren industrian eta abangoardiako asistentzia-sistema sanitario batean berrikuntza- eta inbertsio-proiektu kolaboratibo baten bidez. OSASUNBERRI	2021	2022	2023
<b>Ekintza:</b> Osasunberri proiektua finantzatzea			
<b>Adierazleak:</b>			
Lagundutako erakundeen kopurua		24	
Produktu berriak / produktu optimizatuak			10
Fabrikazio-prozesu berriak / prozesu optimizatuak			6
Terapia berriak			4
Asistentzia-sistema berriak / sistema optimizatuak			5
Eskatutako patente kopurua			10
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa			
	2021	2022	2023
	Zenbatekoa eurotan (Ordainketa + konpromisoa)	Zenbatekoa eurotan (zenbatetsia)	Zenbatekoa eurotan (zenbatetsia)
VII. aurrekontu-kapitulua		5.000.000	

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Osasun-sektorea
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Dirulaguntza zuzena / Gobernu Kontseiluaren akordioa
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	

5.2.2.3. Ardatz estrategikoa: Industria lehiakorragoa

Helburu estrategikoa: EAEn errotutako 4.0 Industria
Organoa: Eraldaketa Digitalaren eta Ekintzaitzaren Zuzendaritza
Programa:
Dirulaguntza-lerroa: Goierri Valley dirulaguntza izenduna

Helburuak, ekintzak eta adierazleak			
	2021	2022	2023
Helburua Lankidetzeta-gune bat izango duen HUB gehigarri bat sortzeko laguntza, industria-arloko enpresa txikiei eta ertainei eraldaketa digitalean laguntzeko. Ekintza Adierazleak Espazioa modu egokian hornituta izatea		1	
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.			
	2021	2022	2023
	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan
IV. aurrekontu-kapitulua. Goierri Valley dirulaguntza.		300.000 euro	

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Industria-arloko enpresa txiki eta ertainak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Dirulaguntza izenduna
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	

5.3.1.13. Ardatz estrategikoa: Bidezko energia- eta klima-trantsizioa

Helburu estrategikoa: Industrian energia-efizientzia sustatzea
Organoa: Industria Sailburuordetza / Industriaren eta Energia Trantsizioaren Zuzendaritza
Programa: 7212 Industria-garapena eta ekintzaileentzako laguntza
Dirulaguntza-lerroa: Laguntzak industriaren sektoreko enpresa txiki eta ertainentzako eta enpresa handientzako

Helburuak, ekintzak eta adierazleak			
	2021	2022	2023
<p>Helburua: Industria-sektoreko ETEetan eta enpresa handietan CO<sub>2</sub> emisioak eta azken energia-kontsumoa murrizteko jarduketak sustatzea, energia-efizientzia hobetuz</p> <p>Ekintza: 263/2019 Errege Dekretuak ezarritako laguntzak, <i>Industria-sektoreko ETEetan eta enpresa handietan energia-efizientzia lortzeko jarduketarako laguntzen programa arautzen duena</i>, 1186/2020 Errege Dekretuaren bidez areagotzen direnak. Eskualde Garapeneko Europako Funtsarekin eta Energia Efizientiaren Funts Nazionalaren ekarpenekin finantzatuta daude</p> <p>Adierazleak : Diruz lagundutako proiektuen kopurua</p> <p>Mugiarazitako inbertsioak milioika eurotan</p>		200 140	120 85
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.			
	2021	2022	2022
	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan
IV. edo VII. aurrekontu-kapitulua		25.000.000	15.000.000

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura
--

<p>Helburu dituen sektoreak:</p>	<p>1.- Industria-sektoreko ETE edo enpresa handitzat hartzen diren enpresak, baldin eta EJSN-2009 sailkapenaren arabera 2019ko uztailaren 30eko Aginduan zehaztutakoen barnekoa bada (EHAA, 152. zk). 2.- Energia-zerbitzuen enpresak.</p>
<p>Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:</p>	<p>Laguntza ez-itzulgarriak. Ondoz ondoko lehia. Azterketa eta txostenak erakunde kolaboratzailearen (EEE) bidez egiten dira. Izapideak:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Eskaeraren sarrera eta erantsitako dokumentazioa.</li> <li>2. Dokumentazioa aztertzea eta ebaluatzea.</li> <li>3. Emateko ebazpena.</li> <li>4. Jarduketak egitea.</li> <li>5. Inbertsioen eta gastuen aitortpena eta justifikazioa.</li> <li>6. Jarduketak egin izanaren justifikazioa aztertzea eta ebaluatzea.</li> <li>7. Laguntza ebaztea eta ordaintzea.</li> </ol>
<p>Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:</p>	<p>Ez dagokio</p>

5.3.3.15.-. Ardatz estrategikoa: Portuen kudeaketa eta EAEko landa- eta itsasertz-eremua zaintzea. Hazkunde jasangarria.

Helburu estrategikoa: EAEko portuak hobetzea. Portuko azpiegiturak egiteko eta daudenak mantentzeko inbertsioa
Organoa: Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza (23)
Programa: Portuak 51510
Dirulaguntza-lerroa: Pasaiaiko portua berroneratzeko hitzarmena

Helburuak, ekintzak eta adierazleak			
	2021	2022	2023
Helburua: Portuko azpiegiturak egiteko eta daudenak mantentzeko inbertsioak. Ekintza: Pasaiaiko portua berroneratzeko hitzarmena Adierazleak: Pasaiaiko portua berroneratzeko hitzarmena		1	
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.			
	2021	2022	2023
	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan	Zenbatekoa eurotan
VII. aurrekontu-kapitulua		250.000	750.000

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Pasaiaiko udalerria
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Hitzarmena

Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea.  
Deskribapena:

5.4.1.15. Ardatz estrategikoa: OPAROTASUNA. ENPLEGUA ETA SUSPERTZE EKONOMIKOA

Helburu estrategikoa / Konpromisoa: PORTUEN KUDEAKETA ETA EAE-KO LANDA- ETA ITSASERTZ-EREMUA ZAINTzea

Organoa: LANDAREN ETA ITSASERTZAREN GARAPENeko ETA EUROPAR POLITIKETAKO ZUZENDARITZA

Programa: 7111 NEKAZARITZA ETA LANDAREN ETA ITSASERTZAREN GARAPENA

Dirulaguntza-lerroa: Tokiko merkatuentzako laguntzak

Helburuak, ekintzak eta adierazleak			
	2021	2022	2023
Helburua Tokiko produktuen kontsumoa sustatzea, tokiko merkatuen bidez			
Ekintza Tokiko merkatuak martxan jartzeko eta modernizatzeko laguntza		20	20
Adierazleak		10	10
1 Aurkeztutako eskaera kopurua			
2 Lagundutako proiektu kopurua			
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.			
	2021	2022	2023
	Zenbatekoa eurotan (Ordainketa+konpromisoa)	Zenbatekoa eurotan (zenbatetsia)	Zenbatekoa eurotan (zenbatetsia)
VII. aurrekontu-kapitulua		3.000.000	3.000.000

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Toki-erakundeak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Laguntza-eskaera, lehia-prozedura eta ebazpena

Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea.  
Deskribapena:

Ez



5.4.3.16. Ardatz estrategikoa: Enplegua eta suspertze ekonomikoa

Helburu estrategikoa: Arrantza-baliabideen kudeaketa jasagarria lortzea
Organoa: Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza
Programa: 7112 ARRANTZA
Dirulaguntza-lerroa: Arrantza-, merkataritza- eta akuikultura-egiturei laguntzeko programa - Armadoreentzako minimis laguntzak, diru-sarrerak galtzeagatik (COVID-19)

Helburuak, ekintzak eta adierazleak			
	2021	2022	2023
2. helburua: Arrantza-sektorearen lehiakortasuna handitzea.			
5. ekintza Arrantza-enpresentzako laguntzak, diru-sarrerak galtzeagatik.		20	
1. adierazlea. Armadoreentzako laguntzak (jarduketa kopurua).			
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.			
	2021	2022	2023
	Zenbatekoa eurotan (Ordainketa+konpromisoa)	Zenbatekoa eurotan (zenbatetsia)	Zenbatekoa eurotan (zenbatetsia)
IV. edo VII. aurrekontu-kapitulua		500.000	

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Arrantza-sektorea
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehia gabeko prozedura / Organo eskudunaren ebazpena

Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea.  
Deskribapena:

4/2005 Legearekin eta EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planarekin bat etorriz, laguntzen programak hainbat neurri jasotzen ditu desberdintasunak ezabatzeko eta hizkera ez-sexista sustatzeko laguntza-deialdietan, laguntzak onartzeko ebazpenean eta laguntza horien berri emateko egintzei buruzko informazioa jasotzen duten web-orrietan; eta sexuaren aldagaia barne hartzen duten estatistikak egokitzea.

5.4.3.17. Ardatz estrategikoa: Enplegua eta suspertze ekonomikoa

Helburu estrategikoa: Arrantza-baliabideen kudeaketa jasagarria lortzea
Organoa: Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza
Programa: 7112 ARRANTZA
Dirulaguntza-lerroa: Arrantza-, merkataritza- eta akuikultura-egiturei laguntzeko programa - Jatorrian merkaturatzaile direnentzako minimis laguntzak, diru-sarrerak galtzeagatik (antxo)

Helburuak, ekintzak eta adierazleak			
	2021	2022	2023
2. helburua: Arrantza-sektorearen lehiakortasuna handitzea.			
5. ekintza Arrantza-enpresentzako laguntzak, diru-sarrerak galtzeagatik.		14	
2. adierazlea. Jatorrian merkaturatzaile direnentzako laguntzak (jarduketa kopurua).			
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.			
	2021	2022	2023
	Zenbatekoa eurotan (Ordainketa+konpromisoa)	Zenbatekoa eurotan (zenbatetsia)	Zenbatekoa eurotan (zenbatetsia)
IV. edo VII. aurrekontu-kapitulua		400.000	

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Arrantza-sektorea

Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehia gabeko prozedura / Organo eskudunaren ebazpena
<p>Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea.</p> <p>Deskribapena:</p>	<p>4/2005 Legearekin eta EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planarekin bat etorriz, laguntzen programak hainbat neurri jasotzen ditu desberdintasunak ezabatzeko eta hizkera ez-sexista sustatzeko laguntza-deialdietan, laguntzak onartzeko ebazpenean eta laguntza horien berri emateko egintzei buruzko informazioa jasotzen duten web-orrietan; eta sexuaren aldagaia barne hartzen duten estatistikak egokitzea.</p>

5.4.3.18. Ardatz estrategikoa: Enplegua eta suspertze ekonomikoa

Helburu estrategikoa: Arrantza-baliabideen kudeaketa jasagarria lortzea
Organoa: Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza
Programa: 7112 ARRANTZA
Dirulaguntza-lerroa: Arrantza-egiturak kudeatzeko beken programa

Helburuak, ekintzak eta adierazleak			
	2021	2022	2023
1. helburua: Prestakuntza eta gaikuntza 1. ekintza: Arrantza-egiturak kudeatzeko beken programa 1. adierazlea. Ikastaro kopurua	0	7	0
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.			
	2021	2022	2023
	Zenbatekoa eurotan (Ordainketa+konpromisoa)	Zenbatekoa eurotan (zenbatetsia)	Zenbatekoa eurotan (zenbatetsia)
IV. edo VII. aurrekontu-kapitulua	0	300.000	

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	EAEko zentroetako itsasoko eta arrantzako ikasketetako ikasleak.
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehia gabeko prozedura / Organo eskudunaren ebazpena
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	4/2005 Legearekin eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planarekin bat etorritik, laguntzen programak hainbat neurri jasotzen ditu desberdintasunak ezabatzeko eta hizkera ez-sexista sustatzeko laguntza-deialdietan, laguntzak onartzeko ebazpenean eta laguntza horien berri emateko egintzei buruzko informazioa jasotzen

	duten web-orrietan; eta sexuaren aldagaia barne hartzen duten estatistikak egokitzea.
--	---

5.5.1.3. Ardatz estrategikoa: III. ardatza. Planeta. *Bidezko energia- eta klima-trantsizioa*

Helburu estrategikoa: Ekonomia zirkularra
Organoa: Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza
Programa: Ingurumenaren babesa (4421)
Dirulaguntza-lerroa: Ekonomia zirkularreko berrikuntza-proiektuetarako laguntzak

Helburuak, ekintzak eta adierazleak	2021	2022	2023
<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Ekonomia zirkularraren bidez, berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioak murriztea, ekoizpen-prozesuetako baliabideen efizientzia ere aintzakotzat hartuta.</li> <li>Lehengaien kontsumoa murriztea eta, bereziki, isur daitezen saihestea.</li> <li>Enpresa-jarduera jasangarriak sortzea, EAEko ekonomiaren suspertze berdean lagun dezaten, baita lehiakortasuna hobetzen eta enplegu kualifikatua sortzen ere.</li> <li>Enpresen arteko lankidetzak sendotzea (ZTBP 2030 Planarekin bat etorrita), Europako tresnek dakartzaten erronkei eta aukerei hobeto erantzuteko.</li> </ul> <p>Ekintzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>1. lerroa: Ekodiseinurako eta ekonomia zirkularra frogatzeko proiektuak.</li> <li>2. lerroa: Ekoberrikuntza estrategikorako proiektuak.</li> <li>3. lerroa: Ekoberrikuntzako proiektuen diseinu bikaina.</li> <li>Merkataritzaren/Merkatuaren bideragarritasuna sustatzeko eta proiektuak errepikatzeke jarduketak.</li> </ul> <p>Adierazleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Esleitutako proiektuak (kopurua urteko).</li> <li>Enpresa onuradunak (kopurua urteko).</li> <li>Proiektu arrakastatsuak, konponbide merkatuarekin (% metatua).</li> <li>BEGak murriztea (aurreikusitako tonak urteko, amaitu ondorengo 3 urteetan, arrakasta-ehunekoaren arabera).</li> <li>Zaborte-giko hondakinak murriztea (aurreikusitako tonak urteko, amaitu ondorengo 3 urteetan, arrakasta-ehunekoaren arabera).</li> <li>Fakturazio gehigarria (aurreikusitako milioi €-ak urteko, amaitu ondorengo 3 urteetan, arrakasta-ehunekoaren arabera).</li> <li>Eratortitako inbertsioa (aurreikusitako milioi €-ak urteko, amaitu ondorengo 3 urteetan, arrakasta-ehunekoaren arabera).</li> </ul>		1.000.000 €	1.000.000 €
		19	19
		30	30
		25	25
		20.000	20.000
		35.000	35.000
		20	20
		5	5
		25	25

<ul style="list-style-type: none"> <li>Sortutako enplegua (kopurua, amaitu ondorengo 3 urteetan, arrakasta-ehunekoaren arabera).</li> </ul>			
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.			
	2021	2022	2023
	Zenbatekoa eurotan (aurrekontuan sartutakoa)	Zenbatekoa eurotan (zenbatetsia)	Zenbatekoa eurotan (zenbatetsia)
Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen IV. kapitulua		500.000 €	500.000 €

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Enpresa pribatuak eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko kideak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehia-prozedura
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea.	Genero Berdintasuneko Planak, esleipenetan berdinketa hausteko irizpide gisa



5.5.1.4. Ardatz estrategikoa: III. ardatza. Planeta. *Bidezko energia- eta klima-trantsizioa*

Helburu estrategikoa: Ekonomia zirkularra
Organoa: Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendaritza
Programa: Ingurumenaren babesa (4421)
Dirulaguntza-lerroa: Enpresa txiki eta ertainentzako laguntzak (ETE zirkularra)

Helburuak, ekintzak eta adierazleak			
	2021	2022	2023
<p>Helburua Merkatuko tresnak ezartzea EAEko ETEen balio lehiakor jasangarria hobetzeko, betiere kluster sektorialak buru dituzten proiektuak garatuz.</p> <p>Ekintza EAEko ETEen artean merkatuko tresnak ezartzea, beren lehiakortasun-posizionamendua hobetzeko tresna gisa (ekoetiketate-sistemak, ingurumen-aztarna, produktuaren ingurumen-adierazpenak...), baita lehentasunezko jarduketa-sektore jakin batzuen tresna espezifikoak ere (materialak, eraikuntza, elikadura...).</p> <p>Adierazleak - ETE parte-hartzaileen kopurua - Proiektu kopurua merkatuan</p>		1.000.000 €	1.000.000 €
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.			
	2021	2022	2023
		Zenbatekoa eurotan (zenbatetsia)	Zenbatekoa eurotan (zenbatetsia)
Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen IV. kapitulua		1.000.000 €	1.000.000 €

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Sektore pribatuko enpresa txikiak eta ertainak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehia-prozedura

Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea.  
Deskribapena:

5.5.1.5. Ardatz estrategikoa: Bidezko energia- eta klima-trantsizioa

Helburu estrategikoa: Airearen kalitatea
Organoa: Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza
Programa: Ingurumenaren babesa (4421)
Dirulaguntza-lerroa: Hitzarmena UPV-EHUrekin - atmosfera kutsatzen duen prozesuak.

Helburuak, ekintzak eta adierazleak			
	2021	2022	2023
3. helburua. Atmosfera kutsatzen duten prozesuen ezagutza eta azterketa sustatzea. Ekintza: Airearen kutsatzaileen jatorriari eta prozesuei buruzko ezagutza hobetzea. Adierazleak Kutsatzaile jakin batzuei buruzko prozesuen/txostenen kopurua			
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.			
	2021	2022	2023
		120.000 €	120.000 €
IV. aurrekontu-kapitulua			

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Euskal Herriko Unibertsitatea
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Dirulaguntza izenduna / Agindua
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	EZ

5.5.2.18. Ardatz estrategikoa: Bidezko energia- eta klima-trantsizioa

Helburu estrategikoa: Natura-ingurunea eta biodibertsitatea kontserbatzea
Organoa: Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza
Programa: Ingurumenaren babesa (4421)
Dirulaguntza-lerroa: Aste klima: «Tokiko eremuan jarduerak sustatzea, herritarrak klima-aldaketaren arloan ekintzara mobilizatzeko»

Helburuak, ekintzak eta adierazleak			
	2021	2022	2023
<p>Helburua: Tokiko eremuan jarduerak garatzea, EAEko herritarrek klima-aldaketaren arloan ekin dezaten, toki-erakunde bidez, ASTEKLIMAREN esparruan.</p> <p>Ekintzak: hitzaldiak, jardunaldiak, tailerrak, erakusketak, ipuin-kontaktak, zinema, antzerkia, bideo-lehiaketa, argazkigintza, bisitak, irteerak, ibilaldiak eta toki-erakundeek proposatutako beste jarduerak batzuk.</p> <p>Adierazleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Udal onuradunen kopurua</li> <li>- Gauzatutako jarduketak</li> <li>- Mobilizatutako pertsonak</li> </ul>		100.000 €	100.000 €
		55	60
		120	120
		4000	4500
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.			
	2021	2022	2023
		Zenbatekoa eurotan (zenbatetsia)	Zenbatekoa eurotan (zenbatetsia)
VII. aurrekontu-kapitulua		100.000 €	100.000 €

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Udalak, mankomunitateak, tokiko beste erakunde batzuk, Udalsarea 2030 Jasangarritasunerako Udallerrien Euskal Sareko kideak

Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehia-prozedura
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	

5.5.2.19. Ardatz estrategikoa: Bidezko energia- eta klima-trantsizioa

Helburu estrategikoa: Natura-ingurunea eta biodibertsitatea kontserbatzea
Organoa: Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza
Programa: Ingurumenaren babesa (4421)
Dirulaguntza-lerroa: «US2030 Tokiko Berrikuntza Proiektuak»

Helburuak, ekintzak eta adierazleak			
	2021	2022	2023
<p>Helburua: Berrikuntzarako eta frogantzako proiektu pilotuak garatzea transferitzeko modukoak izan daitezkeen lehentasunezko eremuetan, baldin eta ingurumen-inpaktuak murrizten badituzte eta, batez ere, klima-ekintza sustatzen laguntzen badute.</p> <p>Ekintzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Klima-aldaketara egokitzea edo BEGen emisioak murriztea.</li> <li>- Lurraldeak karbonoa xurgatzeko duen potentziala areagotzeko jarduketak.</li> <li>- Hiri-eremuan eta hiri-inguruan irtenbide naturalak sustatzea eta erabiltzea.</li> <li>- Lurzorua babestea, kontuan izanik efizientziaz erabili (eta berrerabili) beharreko baliabidea dela, zer harreman duen beste ingurumen-alderdi batzuekin —adibidez, klima-aldaketarekin eta biodibertsitatea babestearekin— eta zer mehatxu dituen, batik bat artifizializazioa, kutsadura eta erosioa.</li> <li>- Lehentasunezko beste eremu batzuk.</li> </ul> <p style="text-align: center;">Adierazleak Toki-berrikuntza bultzatzeko proiektuak, lehentasunezko eremuetan.</p>		500.000 €	500.000 €
		20	20
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.			
	2021	2022	2023
		Zenbatekoa eurotan (zenbatetsia)	Zenbatekoa eurotan (zenbatetsia)
VII. aurrekontu-kapitulua		500.000 €	500.000 €

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Udalak, mankomunitateak, tokiko beste erakunde batzuk, Udalsarea 2030 Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sareko kideak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehia-prozedura
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	

5.5.2.20 Ardatz estrategikoa: Bidezko energia- eta klima-trantsizioa

Helburu estrategikoa: Natura-ingurunea eta biodibertsitatea kontserbatzea
Organoa: Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza
Programa: Ingurumenaren babesa (4421)
Dirulaguntza-lerroa: Hitzarmena Aranzadirekin. GAUTEGI Z ARTEAGAKO PADURAK kontserbatzeko eta lehengoratzeko jarduketak

Helburuak, ekintzak eta adierazleak			
	2021	2022	2023
1. helburua: Ekosistemak babestea eta leheneratzea Ekintza: Urdaibai Biosfera Erreserbako espezie jakin batzuen habitatak hobetzeko jarduketak eta obra txikiak. Adierazleak Hobetzeko eta kontserbatzeko jardueren xede diren habitat eta espezieen kopurua			
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.			
	2021	2022	2023
Biodibertsitatea kontserbatzea. Ekosistemak leheneratzea. Baso-kudeaketa jasangarria. 4. osagaia. NEXT funtsak		482.000 €	
IV. aurrekontu-kapitulua			

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Aranzadi Zientzia Elkarteak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Dirulaguntza izenduna / Agindua
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	EZ



5.5.2.21 Ardatz estrategikoa: Bidezko energia- eta klima-trantsizioa

Helburu estrategikoa: Natura-ingurunea eta biodibertsitatea kontserbatzea
Organoa: Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza
Programa: Ingurumenaren babesa (4421)
Dirulaguntza-lerroa: I berdrola. Linea elektrikoak

Helburuak, ekintzak eta adierazleak			
	2021	2022	2023
1. helburua: Ekosistemak babestea eta leheneratzea Ekintza: Linea elektrikoak konpontzea. Adierazleak Konpondutako poste kopurua		118	
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.			
	2021	2022	2023
Linea elektrikoak. NEXT FUNTSAK. 4. osagaia.		350.000 €	
IV. aurrekontu-kapitulua			

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	I berdrola
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Dirulaguntza izenduna / Agindua
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	EZ

5.5.2.22. Ardatz estrategikoa: Bidezko energia- eta klima-trantsizioa

Helburu estrategikoa: Natura-ingurunea eta biodibertsitatea kontserbatzea
Organoa: Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza
Programa: Ingurumenaren babesa (4421)
Dirulaguntza-lerroa: Udalak - Jarduketak txikiak Urdaibai Biosfera Erreserban

Helburuak, ekintzak eta adierazleak			
	2021	2022	2023
<p>Helburua: Urdaibai Biosfera Erreserban kontserbazioa, leheneratzea edo erabilera publiko jasagarria errazteko jarduerak garatzea toki-eremuan.                      Ekintzak: obrak, hornidurak, konponketak, eraberritzeak, hobekuntzak eta toki-erakundeek proposatutako beste jarduera batzuk.                      Adierazleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Udal onuradunen kopurua</li> <li>- Gauzatutako jarduerak</li> </ul>		100.000 €	
		5	
		5	
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.			
	2021	2022	2023
Jarduketak Urdaibai Biosfera Erreserban. NEXT FUNTSAK		Zenbatekoa eurotan (zenbatetsia)	Zenbatekoa eurotan (zenbatetsia)
IV. kapitulua. Jarduketak Urdaibai Biosfera Erreserban. NEXT FUNTSAK		100.000 €	

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Udalak, mankomunitateak eta beste toki-erakunde batzuk
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehia-prozedura
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	EZ

II. ERANSKINA. - Dirulaguntza-lerroen aldaketa

5.2.1.1. 1. ardatz estrategikoa: Oparotasuna. Enplegua eta susperraldi ekonomikoa

Helburu estrategikoa: I +Gren eremuan Europako batezbestekoarekin parekatzea
Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza / Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetza
Programa: 5413 Teknologia eta 5414 Berrikuntza Funtsa
Dirulaguntza-lerroa: HAZITEK, enpresen I +Gri laguntzeko programa

Helburuak, ekintzak eta adierazleak			
Helburua: Ikerketa Industrialeko edo Garapen Esperimentaleko Proiektuak egiteko laguntza, lehiaren eta strategiaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-sektorean, bai eta 2030erako Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planaren barruko espezializazio esparruetan ere.	2021	2022	2023
Ekintza: Izaera estrategikoko proiektuentzako laguntza.			
Adierazleak:			
Lagundutako proiektu estrategiko bereziren kopurua.	5	5	6
Lagundutako lankidetzako proiektu estrategikoen kopurua.	35	40	40
Proiektu estrategikoetan lagundutako enpresen kopurua.	185	200	200
Ekintza: Izaera lehiakorreko proiektuentzako laguntza.			
Adierazleak:			
Produktuen garapenerako lagundutako proiektuen kopurua.	795	800	815
Produktuen garapenerako proiektuetan lagundutako enpresen kopurua.	720	750	740
Lagundutako lankidetzako lehiakortasun-proiektuen kopurua.	610	620	620
Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileekin abiarazitako lehiakortasun-proiektuen kopurua.	580	575	590
Teknologian oinarritutako enpresa berriak abiarazteko proiektuen kopurua.	25	20	27
Teknologian oinarritutako enpresa berriak abiarazteko proiektuetan lagundutako enpresen kopurua.	38	35	40
Teknologian oinarritutako enpresa berriak abiarazteko proiektuetan lagundutako eragileen kopurua.	9	10	10

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa.			
	2021	2022	2023
	Zenbatekoa eurotan (Ordainketa+konpromisoa)	Zenbatekoa eurotan (zenbatetsia)	Zenbatekoa eurotan (zenbatetsia)
VII. aurrekontu-kapitulua - Hazitek Estrategikoak	53.000.000	50.000.000	53.000.000
VII. aurrekontu-kapitulua - Hazitek Lehiakorrak	43.300.000	45.000.000	48.500.000

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Enpresak, ETEak eta enpresa handiak, enpresa elkarteak eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko agenteak (teknologian oinarritutako enpresa berrien proiektuetarako)
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehia-prozedura. Dirulaguntza ez-itzulgarria
Dirulaguntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duten jarduketak egotea. Deskribapena:	Proiektuak ebaluatzean generoaren ikuspegia eta proiektu-burutzen egokitasuna kontuan izatea, eta Ebaluazio Batzordeetan gizonen eta emakumeen presentzia orekatua bermatzea.

5.2.1.2. 1. ardatz estrategikoa: Oparotasuna. Enplegua eta susperraldi ekonomikoa

Helburu estrategikoa: I +Gren eremuan Europako batezbestekoarekin parekatzea
Organoa: Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza / Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetza
Programa: 5413 Teknologia eta 5414 Berrikuntza Funtsa
Dirulaguntza-lerroa: ELKARTEK, alor estrategikoetan elkarlaneko ikerkuntza babesteko programa

Helburuak, ekintzak eta adierazleak			
